

GAIZKI ERRANKA

Nobela bikaina



SANTI LEONÉ

Duela bi aste gertatu da. Jordi Évolek elkarrizketa egin dio Alfonso Guerrari La Sextako *Salvados* saioan. Independentistei kolpistak deitzea lagungarria ote den galdegin dio kazetariak Guerrari, eta honen arrapostua berehala etorri da: "Patriako apeza bezala ari zara, senarra ETak hil dion emaztekiari leporatu baitio herrira itzuli izanak ez duela gauzak konpontzen laguntzen". Eta orduan, kazetariak: "Ez zaizu iduritzen Kataluniakoa Aranbururen nobela bikainak deskribatzen duen egoerarekin alderatzea gehiegi dela?"


Nobela bikaina. Balorazioa, halere, ez da literarioa, Aranbururen liburuak literatura utzi eta neurgailu moral bihurtua baita aspaldi honetan. Kontsentsu berria osatu du: norbait noraino den demokrata erakusteko, ez da *Patria* irakurri eta gustatu izana baino seinale argiagorik. Nobela bikaina dela adieraztean, erreguka ari zaio Évole Guerrari berriz ere demokraten komunitatean onar dezan, honek kanporatzeko mehatxu egin baitio Aranbururen liburua solasera ekarrita. Edo, bertzenaz adierazita, Évolek zalantzan jarri nahi izan du PSOEko agintariaren sen demokratikoa prozesu katalana estatu kolpe batekin konparatzean, eta orduan Guerrak zakila mahai gainean paratu du, zeinen handia duen erakusteko. Eta Évolek erantzun zezakeen ez zuela erantzun zaharmindu hori onartzen, *Patria* Kataluniarekin deus ikustekorik ez duen erdipurdiko fikzioa dela. Baina, horren orde, berak ere mahai gainean paratu du bere zakil demokratikoa, zeinen polita eta leuna. Nobela bikaina, Aranbururena.

*Salvados*eko pasarte horretan ikusgai dugu gaur egungo ezker jakin baten problema nagusia: jarrera eskuindarrei, are jarrera ez demokratikoei erantzuten saiatzen zaie alde aurretik eskuinak ezarritako markoa eta erreferentziak onartuta. Nobela bikaina dela aitortuta. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



"G7KO GAILURRA MIARRITZEN ANTOLATZEAK SUPOSATZEN DUEN PROBOKAZIOARI AURRE EGITEKO BILDU GARA GAZTEOK"

OLDARTU, G7-AREN AURKA SORTUTAKO DINAMIKA

"Elite ekonomikoen interesak defendatu eta esplotazioa betiketoez elkartzen ditu" abuztuan Miarritzeko gailurrean batuko diren zazpi potentzia ekonomikoak. "Turismo masiboaren adibide den postaletako hirira etorriko dira, Miarritzera. Euskal kulturaren folklorizazioa, prekarietatea eta etxebizitzaren prezioen etengabeko igoera nahasten diren Lapurdiko kostaldera. Hots, euskal gazteriak duintasunez bizitzerik ez duen lekura". **TOPATU.EUS (2019/02/20)**

